

Present
Past
Perfect

MAIALEN AKIZU

E
l
k
a
r
r
I
r
a
k
u
r
r
i
z



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

MAIALEN AKIZU

Present

Past

Perfect

E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z

Gonbidapena jaso genuen. Whatsappez bidalitako mezu bat zen, bere emotikono, letra belztu, helbide eta Googleko esteka. Etxearen inaugurazio festarako gonbita zen. Ez nekien etxe bila zebiltzanik, batera bizitzea probatu nahi zutenik, bazuten horretarako modurik, ba al zegoen horretarako modurik.

Uau batekin erantzun nion. Behin ni baino azkarragoa den lagun bati entzun nion zer esan ez dakizunerako beti gelditzen dela ondo *uau*, eta arrazoi du. Whatsapperako balio du, batez ere. Aurrez-aurre gehiago kostatzen zait *uau* horren tonua asmatzen; batzuetan amaierako *u* hori gehiegi luzatzen dut, eta otsoa aieruka nola gelditzen naiz. Noiz bukatzen dira aieruak? Gertatu izan zait *u.a.u* moduko bat ateratzea ere, bokalen artean puntuak jartzea, eta lekuz kanpoko harridura zabaltzea nahi gabe. Whatsappean beti geratzen da ondo: *Uau* eta irribarre zabaleko emotikonoa. Ttak. Inork ez daki zer esan nahi dudana, zer esan behar den, eta kodigo horretan esatea da kontua.

Kontu kontua hurrengo asteazken arratsaldean Mainerrek eta Mikelek euren etxearen inaugurazio festara gonbidatu gaituztela da. Mainerrek emotikonorik gabeko azalpen xeheagoak larunbateko kafean eman zizkigun. Ikusi orduko Junek besarkada handi bat eman zion, eta besteok ere hori egin behar zela ulertu genuen. Besarkada bat eman ulertzen ez zen garrasi batekin. Lekua hartu zuen mahai bueltan, kafesnea eskatu zion zerbitzariari eta hasteko "barkamenak" eman behar zizkigula esan zigun, bai, barkamenak, ordura arte ez zigulako ezer esan. Denontzako sorpresa bat izatea nahi omen zuten, baina herrian bateren bati iritsi omen zitzaion albistea, eta horregatik, inaugurazioa San Juanen aurretik egitea erabaki zutela. Asteazkena iruditu zitzaizela egunik aproposena, ostegunetako zumba klasea ez galtzeko, eta gainera, asteazkena izanda, Mikelek azokatik egingo zituela erosketak. Asteazkenak, azoka, Mikel. Uau.

Kafesnea ekarri zioten Mainerri, eta trago bat eman zion, horretxan behar urgentea zuela adieraziz. "Azken asteak oso neketsuak izan dira" gehitu zuen, kafesnearen bigarren arrapalako zurruta justifikatu beharko balu bezala. Yaizak jarraitu hartu zion erreleboa esanez begiratu zuela helbidea eta lekua bikaina dela. Nik hartu gabe nuen lan hori eta azaldu zidaten Kontxiren arrandegi ondoko etxea zela, *pakistaniaren* parez-pare zegoena. "Bai, Miguel Lopez de Legazpi kalea". Maider urduri, nekatuta edo aldatuta, justuki zer

zegoen jakiteko gai ez nintzen. Sanou etxearen nolakotasunengatik galdetu zion, zenbat logela, komunak, ze da balkoitik, baina Mainerrek ez zigun argibide gehiago eman nahi. “Etorri eta ikusiko duzue”. Kortxoak kendu osteko poza nabari zitzaion Mainerri, nahi zuen bakarria inguruan serbitzea zen eta hor geunden gu: botila barrukoa gustatu edo ez tonuak altxa behar dira, kopak gerturatu, ospatzeko zerbait genuela antzeman zedila.

Etxearen gain itzulinguruka hartu genuen kafea eta Yaiza izan zen galdetu zuena. Yaizak beti egiten du denok egin nahi eta nola egin ez dakizkigun galderak. Eta gainera ondo egiten du.

Eta kontatu: zer egin duzue, etxea erosi? Alokairuan zaudete? Edo nola izan da?

Tabernako aulki zurrunean hamakako posturan esertzen zekin Yaizak erori gabe, eta Cheetos paketea irensten ari zen bitartean. Ahoaren buelta osoan zituen Cheetos arrastoak, eta ondo gelditzen zitzaizkion. Nik ez dakit publiko aurrean horrela jaten. Nik dezimalekin kalkulatu izango banu bezala baieztatuko nuke Cheetosek kalte egiten didatela, batez ere, kafesnearekin nahasten baditut. Kalte egiten duen zerbaitekin ondo sentitu bainoago ondo ez sentitzea hobea balitz bezala.

Yaizari begira gelditzen naiz, ia zer galdetu duen ere ahaztuta; a bai, etxea, joder, nola lortu duten etxea. Koadrila guztietan daude lagun aberatsak, eta gure koadrilan, hori, printzipioz, June zen. Junek gu Peñiscolara joaten ginen garaian Islandiara bidaiatzen zuen familiarekin. Praketan ez zuen petatxurik jartzen, eta hala ere, Junek ez zituen prakak urratzen. Bera izan zen lehena hankak laserrarekin depilatzen eta *Mac-a* erosten.

Behin, udako larunbat batean, barbakoa bat egin genuen zerbait desberdina egin guran. Saiheski eta hanburgesa begano artean Sanouri hitzek ihes egin zioten, eta “hemen batzuk”-ka hasi zen: *hemen batzuk nahi dutena izan dute beti, hemen batzuk ez dakite zer den mugikorra zure poltsikotik ordaindu behar izatea, hemen batzuk oso erraz bizi dira*. Junek kontra egin zion esanez euren familiak lan asko egin behar izan duela horrela bizitzeko, inork ez duela egiten nahi duena, eta mugikorrak hizketan hasterako negarrez alde egin zuen. Yaiza ez zegoen egun horretan, eta ordutik ez dugu barbakoarik egin.

Maidar ez zen koadrilako aberatsa. Bere gurasoak irakasleak ziren, aita matematikakoa eta ama haur hezkuntzakoa, Ford bat zuten, Pagoeta kalean etxe bat. Anaia gazteagoa zuen Maiderrrek, futbolearen oso onak, eta aberasteko aukera bakarra anaiaren karreraren zegoela zirudien.

Aitonaren oparia izan da.

Asteazkena iritsi zen eta zazpiretarako azaldu ginen pixkanaka esandako helbidera. Yaiza eta ni elkarrekin joaten gara normalean, ondoz ondo bizi gara, gure gurasoen etxeak elkarren ondoan daude. Ordura arteko "gure etxea" "gure gurasoen etxea" bihurtzen hasi zen nire baitan. Yaizari galdetu nion ea zerbait eraman behar genuen inauguraziora, ea zerbait eramaten den inaugurazioetara. BMtik pasako garela esan dit, eta halaxe egin dugu: 5,68 balio zuen Cuetera surtidoa zegoen beherapenetan. "Hori" esan du Yaizak.

11. portala 2. ezkerrean. Tinbrea jo, eta Maiderrrek "Ongi etorri" kantari batekin zabaldu digu atea. Atarian ispilu handi bat dago. Yaiza ispiluari begiratu gabe pasatu da, eta hori egin dezakeen lehen pertsona bihurtu da niretzat. Nik zeharka erreparatu diot, eta jantzita behera tira egin pixka bat. Eskaileretatik heldu gara bigarren pisura.

Etxeko atean zain zeuden June eta Sanou. "Oraintxe, e!" Maiderrrek denak batera sartzea nahi zuen, eta baten bat falta zen itxuraz. Yaizak txiza gura zuela eta barrura pasa da. Gu hantxe gelditu ginen *Umore onarekin sartu* zioen lanpasaren gainean. Nik horrelako gauzak oso serio hartzen ditut beti, baina Yaiza ez zen bereziki umore onarekin etorri, eta berari pasatzen utzi bazion, ni ere ez ninduen alfonbratxoak irentsiko.

Eskaileretan gora hanka hotsak. Mikelen lagunak. Herriko koadrila mitikoa zen Mikelena: *Masela*. Koadrila egunean polo urdin-iluna zuten *Maselakoek* eta frontoiko bazkarian alderik aldeko mahai-osoak behar izaten zuten. Eurak izaten ziren jaten hasterako "Un ble ble" kantatzen lehenak. Gu baino bi urte gazteagoak ziren, eta urteetan izan dugu

koadrilan eurekin ezer ez izateko arau idatzi-gabea. Mainerrek ez digu sekula hala aitortu, baina nik uste Mikel gustatzen zitzaiola ez zigula denbora batean esan beldur zelako.

Hiru lagun azaldu ziren: Aiert, Lander eta Josu. Aiert ezagutzen genuen; Junerekin ibili zen Batxilerreko bigarren urtean. Ibili-edo. Junek ez dizkigu horrelako gauzak kontatzen. Sekula ez dizkigu kontatzen. Asteburuero ateratzen ginen garaia zen, asteburuero Aiertekin etxera joaten hasi zen eta larunbat batetik bestera, elkarri keinutxoak, begiradak, belarrirako xuxurlak esatetik, elkar “agur” lehor batez agurtzera pasa ziren. Ez ginen galdezka ibili. Institutu garaiko harreman gehienak ez dira bizitza osorako. Ez gara gure gurasoak. Junek esan zigun gauza bakarra izan zen Aiert “interesatu” bat dela. Junek jende askorengatik esaten du “interesatua” dela.

Josu, Mikelen beste laguna, nirekin joan zen ingelesera bi urtez *First-a* prestatzen aritu ginen. Nik ez nuen gaintitu azterketa eta nire oroimenean, berak ere ez. Gerora, parrandan, noiz edo noiz txupitoren bat edan dugu “present past simple”ren kontura, baina gauaz beste ez dut inoiz berarekin hitz egin. Lander, hirugarren laguna, gure Antton pediarraren semea da. Lander ikustean beti pentsatzen dut, behin txertoak hartzeko egin nituen marruen berri izango duela. Kontatuko ziola aitak, *mundu guztia* enteratu zela esaten dutelako gure amak. *Mundu guztia enteratzea* da lotsaren maxima gure amarentzat. Eta pasarte hori askotan gogoratzen du. Iruditzen zait bere orduko lotsaren zati bat banatu nahi duela aldian-aldian, eta nire kasuan behintzat, lortu du puska bat eramatea.

Mikelek sorbalda-sorbaldaren kontra agurtu ditu hiru lagunak, eta txanpain botilak hartu dizkie Mainerrek pozarren: “Eskerrik asko!”. Orduan eman diot gure gailera-kasa nik, ere Mainerri eta “uou” batekin jaso du.

Mikelek atea zabaldu du “ongi etorri” esanez. Barruan, ordea, ispilu baten alde batetik bestera zintzilik “Bienvenidos” banderola dago ikusgai. Hori Amaia eta Luis–Maidarren gurasoak– etortzen direnerako kenduko dutela pentsatu dut. Sarrerako ispilu handia umore onarena ziurtatzeko dela dirudi, eszenari flashik gabe markoa jarriko balu bezala. Sarrerako altzarian gainean giltzak uzteko ontzitxo bat, plastikozko landare bat eta

Mikelen eta Mainerren iazko udako argazki bat daude. Mainerrek whatsapppeko perfilean izan zuen argazkia. Elkarrekin ez diet besterik ikusi.

Oinetakoak hemen utzi mesedez. –Altzariaren behealdeko hutsunea seinalatu du Mainerrek.- Zapatak uzteko beste lekuren bat pentsatzen ari gara, baina oraingoz horrela. Kanpotik ekarriak asko zikintzen du etxea, eta ohitura hori hartu nahi dugu.

Mainerrek museo bateko gidaren tonu eta gorpuzkera hartu du, eta hasierako oharrak ematen hasi da: bere aitona orain dela hogeita hamar urte erositako etxea dela, berez, bi pisu direla bat eginda. Alokairuan izan dutela urte hauetan, izeba ere bizi izan zela bolada batean, baina Mainerrek hogeita bostak betetzerakoan etxeko giltzak eman zizkiola opari aitona. Zorte handia izan dutela. Elkarrekin bizi nahi zutela garbi zutela, biak lanean ari direla, eta sartu aurretik euren gustura jartzen aritu direla. “Oraindik gauza asko dago aldatzeko, baina poliki-poliki. Zoru erradiatzailea –*suelo radiantea*– eta aerotermita jarri dugu, eta hori zen guretzat oinarritzakoa: autosufizientzia”. Zoruarena aipatzean, noski, denok begiratu dugu lurrera, eta hurrengo galtzerdi pausua suabeago egiten saiatu garela iruditu zait, asko balio zuen zerbaiten gainean mugitzen ari ginela disimulatu ezingo bagenu bezala. *Autosufizientzia* uste dut lehenengoz orduan entzun nuela.

Pasilloan aurrera goaz denok batera. Mainerrek eta Mikelek interruptoreak piztu eta itzaltzen dituzte. “Eskuinetara dutxa daukan komuna. Bainerarekin beste bat dago. Badakizue, badaezpada biak edukitzea beti dator ondo”.

Mikel jendearekin abegikor azaltzen den horietakoa da, motel eta pausatu egiten zuen berba, hitz justuak aukeratzen ariko balitz bezala. Aurpegiko hezurak antzeman egiten zaizkio, ez da oso altua, eta argala da oso. Bere hankak nireak baino askoz finagoak dira. Zango fineko mutilekin gizona sentitzen naiz. Mikelek ez du ahots tonua goratzen, pelikulak ikusten ditu, literatura irakurri. Hitz egin dugun guztien erreferentziaren baten bueltan egin dugu. “Irakurri duzu Lizar Begoñaren azkena?”. Galdera forman egiten du, baina ez da Yaiza bezain ona; antzeman egiten zaio zer nahi duen. Uste dut ez dela horrelakoa denekin. Badaki ni naizela koadrilako *kultureta*, eta nire lagun egiteko modua

dela pentsatzen dut. Mikelek menorkinak janzten ditu udan, txano eroriak, eta kamiseta basiko zuri edo urdin ilunak. Ez daukat argi diru pixka bat duen, diru nahikoa edo gehiegi.

Altzairuei buruzko xehetasunak ematen jarraitzen du bikoteak, txandak errespetatuz – “hau kontatu zuk” – eta tupust egiteak elkarrentzat zeinen eginak duden erakutsiko balu bezala. Salako armairua Azpeitiako altzari denda batetik erosi zuten, garestia zen baina gauza hauek *bizi osorako* omen dira. Logelako mesanotxea bigarren eskukoa zen, Mikelen aitak bernizatua. Logela bat hutsik zegoen, eta beste batean ohe handi bat zuten jarrita, “inbitatuentzat” edo. “Apuntatuta” esan du Aiertek. Inbitatuen gelako altzariak ez zirela eurek erositakoak azpimarratu du Mikelek, badaezpada.

Sukaldea bai, sukaldea berritu egin dute sartu aurretik. LED argiak etxe osoan daude jarrita baina sukaldean bereziki antzematen dira. Hori *Izpikoekin* diseinatu dutela, bitrozeramikako indukziokoa zela, labea, mikro-uhin labea eta ontzi-garbigailua *normalak*, eta hozkailua handixeagoa hartu dutela, atea alderik alde zabaltzen den horietakoa, *amerikanoa*. Aiertek supituan ireki du frigorifikoa “zerbeza frexxxkuak” esanez. Barretxoa atera zaio Juneri. Mainerrek sukaldatzeko robota ere seinalatu du. Bere izeben oparia izan omen da. “Horrelako opariak eskertzen dira”. Barre egin behar ote zen erabaki aurretik, Mikelek zerbezak atera digu izozkailu amerikanotik. Topa egiteko ordua da. Mainerrek esan dio ea kopak ez al dituzten aterako, goiko estanterian ezkerretara daudela, baina Mikelek ez dela behar esanda brindiserako azken bi zerbezak banatu ditu.

“Gora ezkonberriak!” oihu egin du Aiertek, baina Mainerrek “shh” batekin aurretiaz pentsatutakoa esatera doanaren segurtasunez bota du: guregatik.

Gero sukaldeko mahai gaineko platerak salara eramaten laguntzeko eskatu digute: urdaiazpikoa, gazta, Mercadonako patata tortila, guakamolea, hummusa. Azokatik erositako bakarra ogia zela iruditu zait. Mikelek musika jarri du. Ingelesez ari dira, ez dakit zein talde den, baina ahots urratuarekin kantatzen du abeslariak.

Askotan ikusi ditugun pelikula horietako baten parte gara, poliki mugitzen da bakoitza, baina nora doan jakingo balu bezala. Sanouk beste zerbeza bat eskaini dit, eta azken zurrut luzea egin diot eskuan nuenari. Yaizak hasi zuen denontzako moduko elkarrizkata:

Eta, zuek etxebizitzaz zer pentsatzen duzue? Ni uste dut etxe pribatu bat izatearen aurka nagoela – Yaizak denontzako moduko elkarrizketa hasi zuen.

Ba al dago ba bizitzeko beste modurik? Gazte zarela bai, baina egonkortasun bat nahi baduzu, oso zaila da bestela bizitzea. Etxe bat aktibo segurua bat da. Diruak balioa galtzen du bankuan uzten baduzu. – Gero jakin nuen Josu zuzenbidea ikasten ari zela.

Hori horrela da – Sanouk arrazoi eman zion Josuri. Harritu egin ginen, Sanouren lagun-laguna Yaiza zelako, eta horrelako momentuetan ez duelako inporta zer pentsatzen duzun. Lagunagoa denaren alde egin behar da. Konstituzioan dago idatzita. Sanou esandako matizatzen saiatu da. – Nik sinesten dut beste gauza batzuk aldatu behar ditugula, heteropatriarkatuari sua, ekofeminismoa tope, antolaketa da bidea. Baina, jo, nik nire etxe bat nahi dut eta nire etxearekin amesten dut. Intimitate horrekin, norbere gela propio horrekin, balkoi batekin. Nik balkoidun etxe bat nahi dut. Oraintxe komunaren eta balkoiaren artean aukeratu beharko banu balkoiaren alde egingo nuke.

Sanouk marinel bat dauka senean. Barbakoa egin genuen hartan ihes egin zion timoiak, baina bestela bere hitzartzeetan txalupa batean olatu artean nola ibiltzen gaituela sentitzen dut, gora eta behera, goregi eta beheregi, eta beti jakiten duela tripulazioari nola eutsi.

Ba nik komun komunaren alde – Mikelen hirugarren laguna, Lander, pediatarren semea, hizketan hasi da. – Erreterian badut lagun bat etxebizitza proiektu batean dagoena eta bikaina iruditzen zait. Nire lehengusuak ere Ataunen bizi dira beste sei kiderekin baserri batean, eta gaia asko dute landuta. Nik horrelako zerbait probatuko nuke.

Probatu. Izozkien zaporeak, arropa, ikasketak, pertsonak. Denerako balio du probatu aditzak. “Gure hippitxoa” esan dio ondotik Aiertek. Konturatu naiz aditzik gabeko

esaldiekin hitz egiten duen pertsona klase hori dela Aiert. Ekintzak eta denborak zehaztu beharrik gabe ibiltzen dena. Nik hitzak eztarrian gora antzematen nituen. Ahizpa zaharrak alokairuan bizi denetik etxebizitzaren eztabaida askotan izan dut berarekin, eta esan nuen proiektu komunal horiek ere ez zirela denentzako eginak; zer gertatzen den zaintza behar dutenekin, zer baserri batean bizi nahi ez dutenekin, bakarrik bizitzea ez al zen aukera bat. Ahizpak adibide gehiago ere jartzen zituen proiektu komunalen ertzak erakusteko baina ez nintzen gogoratzen. Tonu serioegia atera zitzaidan, eta ez nuen Sanouren gaitasunik mareak berriz baretzeko. Yaizak salbatu ninduen enegarrenez:

Beno, nik bakarrik esan nahi nuen mundua kakatzar handi bat dela eta horregatik dantza gehiago egin behar dela – Yaizak Mainerri heldu zion eskutik. – Gora guregatik eta gure lehenbiziko etxeagatik. Ez gara ibili beharko bokadiloak jateko afaltzeko leku bila eta igande arratsaldetan zine foruma egingo dugu Harry Potterren maratoiarekin hasita. *Maimik* foruma –barre txikia atera zitzaidan niri, baina denok ez genuen ulertu–. *Maimik*, Mainer eta Mikel. –Orainoan bai, ulertu genuen–. Umearantzat ere izen polita da *Maimik*.

Beste zerbeza bat edan genuen, eta beste bat. Rona ere azaldu zen nonbaitetik, eta Josuk niri begira altxa zuen basotxo: “Present past perfect”. Pelikula baten eszena batean kokatzen zarenean esaldi oro da metaforagarri. Ospakizun baten parte ginen, eta eutsi egin nahi genuen egun hartan bizitza denoi zerbait oparitzen ari zitzaigun sentsazioari.